



**Mikel Alvarez**

◆ AHTREN AURKAKO  
MUGIMENDUKO KIDEA

## AHTren zuloa eta zorrak

ESPAINIAKO GOBERNUAK AHTren obran murrizketak iragarri eta berehala oihuka jarri dira gure herriko politikari autonomiko guztiak, azpiegitura amorratuari jarritako galgekin aztoraturik, itxuraz eraikuntza lanek abiadura galdu eta amaiera epeak luzatu daitezkeelako.

“Zulo” horretara diru gehiago ez botatzeko eskatu dugu ordea, behin eta berriz, AHTren aurkariok. Izan ere, Euskal Y-aren lanetan, kasu, eragindako kalteak handiak izateaz gain, inbertsio osoaren %70 gutxienez egitea falta zaie oraindik.

Azken albisteek AHTren garapenean nola eragingo duten ikusteko dago. Batetik, bistakoa da kostu ekonomikoa jasangaitza dela: gobernu espainiarrak AHTren eraikuntzan 82.000 milioiko gastuak egin ditu jadanik, eta Europa osoan dauden Abiadura Handiko trenbide guztien %44 penintsulan metatzen da, Kataluniako ERCK egindako azterketa baten arabera. Egoera ekonomikoak okerrera egin ahala, ez dirudi zahuketa maila horri eutsiko dionik.

Baina egin kontu, zorraren kontua inoiz baino ozenago salatu beharko dugu eta. ADI-Feko langileak esaterako txundituta omen daude AHTrekin enpresa nolako zorretan murgiltzen ari den: “Estatu osoan AHTk eraikitzearen sekulako maileguak eskatzen ari da. Ez dago obra bat ere gelditzeko

asmorik”, diote. Horren lekuko, Europako Inbertsio Bankuak 1.000 milioi euroko mailegua utzi dio aurten Euskal Y-aren obrak egiteko. Eta hau gutxi balitz, Sustapen Ministerioak berriki onartu duen 2024 arteko Azpiegitura Planean aurreikusitako AHTren korridore guztien eraikuntzak, datozen 12 urteetan 225.000 milioi euroko gastua eskatuko luke.

Ildo beretik, azken egunotan Urkullu eta Barcina bat etorri dira AHTren obrak azkartzeko diru gehiago jarriko dutela. Barcinak aitortu du, hala ere, Nafarroako Gobernuak oraingoz AHTra bideratu dituen 134 milioi euroak aurreratzeko eskatu behar izan duen mailegua sekulako zama izaten ari dela nafar ogasunarentzat. Bitartean, Gipuzkoan AHT eraikitze 2.500 milioi eurotik gorako esleipenak egin dituen PSOE-PSEren gobernu autonomikoa erabat isilik dago, horrek datozen urteetan Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan nolako eragina izango duen, artean ezagutu gabe.

Bukatzeko, urriaren 27an Baionan AHTren aurka manifestatzeko deitu duten Iparraldeko elkarteek esan bezala, finantzaketa arazoek AHTren obra gibelatzen ahal dute, baina gure mobilizazioak bakarrik geldiaraziko du egitasmo suntsigarri eta behargabeko hau. Ez dezagun gure geroa txikitzaileen eskuetan utzi! ■



## BERTSO BERRIAK

### Talibanak



XDZ

**Beñat  
Gaztelumendi  
Arandia**



**Doinua:** Aita izena.

Izan Gobernu, izan Kongresu,  
Udal zein Foru Aldundi  
baldin botere gunea bada  
gizartearen irudi  
gure mintzoak nor ipintzen du  
prentsaurrekotan urduri?  
Hizkuntzak berez omen ditugu  
pertsonen arteko zubi  
baina gurea amildegi bat  
bihurtu dela dirudi.

Hitz ematetik hitz egitera  
galtzen den konpromezuak  
ageriago utzi ohi ditu  
gugan dauden konplexuak  
inkestek sortu arren etsipen,  
kezka, min eta kezkuak  
belaunalditan iraungo badu  
gure arbasoen suak  
euskaraz izan beharko dute  
edukiak zein mezuak.

Nahiz talibanak edo naziak  
esaka ari zaizkigun  
hemen euskaraz dakigun denok  
garelako elebidun  
gure harrizko herria hain da  
burugogor, mingain-bigun...  
Euskara gugan dagoelako  
ez PPn eta ez Bildun  
ea hurrengo Lehendakariak  
nola hitz egiten digun. ■

